

## **Gure historiaz**

**[*Síntesis de la historia del País Vasco, 1974*]**

Oilarite

*Hitz*, 2. zk., 1975-03: 36.

Liburu honek 209 horrialde ditu, gogoz eta errez irakurtzen direnak, beren irakurketaren barna Euskal Herriaren nortasun politikoa argi agertzen digutelarik.

Ene irudiko, liburu hau, zuzenki behintzat, ez da guretzat egina, euskaldunontzat alegia. Dirudenez, gure arazoa beren aurrean izanik, ezagutzen ez gaituztelako ulertzen ez digutenei zuzendurik zaie batez ere.

Ezer gutxi da lan honek Euskal Herriko Kondairaren ezagupen zientifikoari erasten diona. Bainan idazleak zuen helburua ez zen hau noski, kondaira hori zientifikoki aztertzea eta aberastea alegia. Dakarkigu euskal arazo politikoen irakaspén laburra, borondate onez euskal arazoa ulertu nahi dutenentzat, sarrera gisako zerbait da. Eta arrazoi askorengatik, liburu honen argitaratzea benetan gauza egokia eta ordu onekoa izan dela esan dezakegu.

Bainan ohargarri dela deritzagu zenbait punduren ez ukitzea edo ia ukitu gabe uztea:

1.- Santxo Handiak izan zuen garrantzi politikoaren azalpena lerro batzuetan laburtua dago. Gure aburuz, baldin idazlearen asmoa behin betirako Euskal Herriaren duen nortasun politikoa oinharritzea eta ezartzea bazen, Santxo Handiak, Nafarroako errege eztabaidatuak, azalpen luze bat merezi zuen, bera izan baitzen Euskal Herriko Estatuaren benetako sortzailea. Hontaz, Oruetak egin duen lan sakonaren ondoan, honelako gutiesterik ezin onhartuzkoa zaigu.

2.- Nekazari ekonomian artogintzan hasteak, aldaketa handiak eta funtsezkoak sortarazi zituen sasoiko harreman sozio-ekonomikoen artean; hau aipatu ere ez da egiten. Gaur dakigunez, Euskal Herriaren jabegoa pribatuaren aztarrenak aitzinakoak izan arren (ikus Beltzaren "El Nacionalismo Vasco") bere berezitasun gogaikarriak artogintzak sorturiko aldaketan ondoan hartu zituen; lehen neurri batetan bederen, izen onean oinharritzen ziren eritzi eta erizpideak, orain klasean edo gizarte mailan oinharritzen hasi ziren.

Idazleak bere lanean zuzendu duen erizpidea "betikoa" dela deritzagu; hau da lan honetan buruzagi eta erregeen kondaira gehiago dakusagu, menpekoen kondaira sozial bat baino. Oso arin eta gaintik aztertzen da, herriak zer pentsatzen zuen eta pentsakera honen bilakaera.

Honexegatik beharbada, aski zabal azaltzen zaizkigu alde ezezkoiak, guda galtzeak, Fernando Katholikoak Nafarroako erresuma eskubiderik gabe bereganatzea, eta abar; gertaera hau inor salatzeke orduan interesgarri badira ere, euskal izatearen ulertzeko ez dira hain funtsezko. Egileak garbi esaten ez duena, nahiz eta gertaerarik gehientsuetan argi azaldu zera da: gure herriaren gaitzen iturria haren barnean zegoen zatiketa zela eta zatiketa honetaz atzerriko indarrak baliatzen zirela beren onerako. Hontaz ongi deritzagu

banderiozen borroken azalpenari egileak emaniko zabalera handia, nahiz eta azkenean atera zitezkeen ondorio zuzenak ez atera (hontarako beharbada, idazlearen gogoko ez den beste pentsa-molde batez ikusi beharko litzateke kondaira).

Pentsamolde hau bera da noski, munduan zehar kapitalist eta komunisten artean dagoen aurkakotasunak, Euskal Herriak daraman borrokan zerikusia ba duela pentsa arazten diona, eta honek zailago egiten duela euskal mugimenduak hedadura handiagoa hartzea (172. horrialdean). Euskaldun izatea ideologia bat balitz bezala! Hau, ideologiarik gabe inor ere ez dela euskalduna esatea bezalatsu da. Handia da oraindik gaur, honelako eritziak azaltzea!

Koloka jarri ezin daitekeena zera da: delako euskal batasuna ezinezkoa dela, euskal izateari buruzko bi erizpide aurkakoak beren artean borrokan ari diren une beretik. Eta, jakina, arazo hau ez da gaurkoa bakarrik: kapitalismo, sozialismo, komunismo... hitzak sor aurrez ere, delako euskal batasuna, hori besterik ez zen: delakoa. Eta bestela, hor ditugu egileak azalduriko banderizoen borrokak, adibide garbitzailatzat.